

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

508

EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 19koa, HABEko zuzendariarena, 2021. urtean euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroan inskribatutako alta-inskripzio eta bestelako oharpenak argitara ematen dituena.

Euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroa arautzen duen 2003ko abuztuaren 6ko Aginduak, Kultura sailburuarenak, 2. artikuluan ezarritakoaren araberak, eta HABEren arau organikoak onartzen dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretuak ematen dizkidan eskumenez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2021. urtean euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentro homologatuen Erregistroan jasotako oharpenak argitara ematea (eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, bide administratiboa agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkez diezaiokete Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 19a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.

ERANSKINA

Izen-aldaketa izan duten zentroen zerrenda.

Izena	Erreg. zenb.	Izen berria	Ebazpenaren data
Irrintzi AEK euskaltea	157	Groseko Irrintzi AEK euskaltea	2021-03-10

Helbide-aldaketa izan duten zentroen zerrenda.

Izena	Erreg. zenb.	Helbide berria	Ebazpenaren data
Altza euskaltea	285	Txapiñenea, 1-behea, Donostia	2021-06-14

Titularitate-aldaketa izan duten zentroen zerrenda.

Izena	Erreg. zenb.	Titularra	Ebazpenaren data
Santurtziko udal euskaltea	22	Santurtziko udala	2021-12-10